

BALEIKE

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA



TOPOGRAFIA

**HERRIKO
ERDIGUNEAREN BILA**



ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaiia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21

URRIAN EMAN RULETARI ETA LORTU ZURE OPARIA!!!



Urriaren 17tik 21era

*Gertu bizi,
Gertu irabazi!!*



Euskadi, argiaren, bion comin





BALEIKE

324

2022-URRIA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- 4 **Hitz tantak** Juan Luis Romatet
Joar Garate
- 6 **Hainbat aburu** Iñaki Zubimendi
Zialtzeta
Grebek ez dute ezertarako balio
- 7 **Errematea** Sara Iburguren
Baliabide bila
- 8 **Elkarrizketa** Maria Maya
Manterola
*Maitane Diaz de Zerio Sarasketa:
"Amonak, amak eta nik, hirurok izan
dugu galeraren bat"*
- 13 **Erreportajea** Onintza Lete Arrieta
Zumaiaren bihotzean
- 20 **Erretratua** Juan Luis Romatet
*Maria Teresa Ibarra, administrari
ohia udaletxean eta organista ohia
parrokian*
- 25 **Heziketa** Mireia Centeno
Gozoki gehiegi jaten ari zara!
- 26 **Plazan bazan**
- 28 **Izpiak eta hizkiak** Arnaitz Rubio
Aprea
Julian Amenabar
- 31 **Zientzia eta ingurumena**
Gonzalo Torre
*Babesguneetako habitatak:
Iurraldeko tapiz preziatuena (II)*
- 37 **Hamaika argi gure euskarari**
Imanol Azkue Ibarbia eta Daniel
Carballo Ostolaza
*Publikatak, en lengua vulgar o
bascongada*
- 43 **Agenda**
- 44 **Literatura** Antton Peñalba
Familiako Lexikoa
- 45 **Nire txanda** Soraya Lopez
Preziorik ez
- 46 **Azkena** Juan Luis Romatet
Hego-haizeak dakarrena

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Juan Luis Romatet
jlromatet@ukt.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Hizkuntza arduraduna

Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpuru
faizpuru@ukt.eus

Administrazio arduraduna

Uxua Ostolaza
uostolaza@ukt.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Joar Garate

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Txikitatik ezagutu du Joar Garate Ruedak (Zumaia, 2003) bertso mundua, familiarik. Zumaiaiko Bertso Eskolan aritua, Historia ikasten ari da Gasteizen. Bertsolaritza zaletasuna du, eta Gasteizen ari zaio segida ematen.

Historia ikasten ari zara eta bertsoan ere aritzen zara. Zer izan nahiko zenuke etorkizunean? Historialaria ala bertsolaria?

Bertsolaritza zaletasuna da niretzat. Nik, berez, irakaslea izan nahi dut.

Txikia zinenetik zabilta bertso munduan. Zerk erakarri zintuen?

Gure aita bertsoan ibilia da. Eskolan, hirugarren mailan nenbilela, 8-9 urteko ume moko bat nintzenean, irakasle batek esan zidan bertsoan ondo ikusten ninduela, eta galdetu zidan ea Eskolarteko Bertso Txapelketara aurkeztu nahiko nukeen, idatzizko kategorian. Ondo aritu nintzen. Gero, hurrengo urtean sartu nintzen Bertso Eskolan, eta orain arte. Beno, orain Zumaian ez dut egiten bertsoan, baina Gasteizen zerbait egiten dut.

Zer garrantzia ematen diezu bertso eskolei bertsolaritza hedatzeko lanetan?

Herri bakoitzean desberdina da. Adibidez, ezin duzu konparatu Zumaia Hernani batekin. Hernanin kristoren indarra du bertso eskolak, eta Zumaian, ez hainbeste. Bertso eskolan daudenak kenduta, ni izango naiz Zumaiaiko bertsolari gazteena, eta hemen apenas dut aukerarik inorekin bertsoan egiteko. Azpeitian eta Azkoitian bertsoan aritu daitezke beraien artean, Zarautzen ere bai, eta nik bertsoan jarraitzen dut Gasteizen ikasten dudalako. Bestela, ez dut uste jarraituko nukeenik bertsoan egiten.

Eta zergatik uste duzu gertatzen dela hori Zumaian?

Nik uste unibertsitatean sartzean hutsune bat sortzen dela. Kirolean jendeak jarraitzen du. Adin batetik aurrera jendeak garrantzia handiagoa ematen dio kirolari beste gauza batzuei baino. Kirolak gehiago exijitzen dizun momentuan,

dantzak, bertsoak, antzerkia edota musika utzi egiten dituzu.

Zuk Gasteizen jarraitzen duzu zaletasun horrekin.

Zortea izan dut; izan ere, Gasteizen jende pila dago bertsoan aritzen dena, eta badago aurrera eramaten ari garen proiektu antzeko bat bertsolari gazteentzat. Bakoitza bere kabuz aritzen da bertso eskolan, baina gero, proiektu komun bat dugu, Unibertsolariak izenekoa, eta hileko azken asteazkenetan elkartzen gara unibertsitateko jendea taberna batean bertso saioak egiteko. Saioaren aurretik, unibertsitateko beste lagun batzuen kontzertuak ere izaten dira.

Bertsogintzarako hiri aproposa al da Gasteiz?

Euskal Filologia karrera bertan irakasten da, eta uste dut horrek laguntzen duela. Bertsoan jende asko gabiltza, eta horrek asko laguntzen du.

Bertsoak, idatziz edo kantuan? Zer nahiago duzu?

Kantuan gustura sentitzen naiz, baina agian erosoago idazten. Beno, bietan nahiko eroso, baina konfiantza gehiago ematen dit idatzizkoak. Zerbait gustukoa ez badut, berriro has naiteke. Idatzizkoan zorrotza naiz, perfekzionistagoa.

Orain gutxi, irailaren hasieran, Lekeition izan zara bertso saio batean.

Mungiaiko [Bizkaia] lagun baten proiektua zen, Izaro Bilbaorena. Proiektu polita zen; izan ere, azken finean, *frikisaioak* ziren. Aurretik, esaterako, Harry Potterren inguruko saio bat egon zen, eta horoskopoen batekin bukatu zen. Gure saioak denboraren makina zuen gaitzat. Politia izan zen, desberdina; ondo pasatu nuen.

Txapelketetako lehia gustukoa al duzu?

Ez. Beno, bertsoarako aukera ematen badit, bai, baina nahiago dut lagunekin kantatu. Hori gustatzen zait.

Txapelketa Nagusia hasi da. Egunen batean zeure burua ikusten al duzu han?

Ez, ez, ez. Txikitan baietz esaten nuen, baina uste dut gehiago zela ume baten ametsa errealitatea baino. Orain, ikusita nola dagoen kontua, hau da, ikusita zer maila dagoen Gipuzkoan, ezta pentsatu ere. ■■■■



ERREMATEA



SARA IBARGUREN

Baliabide bila

Azken boladan hainbat pertsonaren bizipenak entzun izanak narama gaur iritzi artikulu honetarako gaia aukeratzera. Bizipenak baino, kezkak direla esango nuke. Herri guztietan ditugu osasun etxeak, gorputzeko edozein ataletan ondoeza sentitzen dugunean bertara joan eta berehalako arreta eskaintzen digutenak. Buru osasunari dagokiona izan ezik. Sarritan entzuten dugu buru osasuna zaintzea funtsezkoa dela. Baina, nola zaindu dezakegu, horretarako trabak jartzen badituzte?

Osakidetzak psikologo edo psikiatra batek zeure buruarekin ondo sentitzeko laguntza eskaintzea nahi baduzu, profesional hori hainbat hilabetetan behin bisitatzeko aukera eskaintzen dizu. Baina bada laguntza hori askoz sarriago behar duen jendea.

Osakidetzak aukera hori eman ezean, pribatura jotzen dute horretarako baliabideak dituztenek. Eta, dirua, halabeharrez, horretarako erabiltzea erabakitzen dutenek, garestia dela iritzita eta arrazoi faltarik gabe, psikologo pribatu horrengana joateari uztea erabakitzen dute. Horrela entzuten ditugu gero buru osasunaren inguruko datu kezkarriak; baina, agintariak prest al daude datu kezkarri horiek jaisteko baliabideak jartzeko? ■

deialdia? Debaterik izan al duzue gaiari buruz? Eskola orduetan jai egiteak zer onura ekarriko dizkio aldaketa klimatikoaren aurkako borrokari? Jai egiteaz gain, beste zer ekintza daude programatuta?... "Joe, ze txapa!", semeak... (Bai, semeari burutik behera ur baldekada bat botatzea bezalakoa izan da galdeketa, aitortzen dugu, gu ere ikasten ari gara egoera hauek kudeatzen, orain arte ez genuen seme neraberik izan, zer nahi duzue?).

Itzul gaitzen harira. Ikasle garaian greba deialdien erabilpen desegokiak, gerora bere baliagarritasunari buruzko zalantzak sendotzeko balio duela esango nuke nik. Helduoi (guraso, irakasle, sindikalista eta abarri) dagokigu ikusaraztea greba ez dela eskolan edo

lanpostuan jai egitea bakarrik, hausnarketa baten ondorio izan behar duela, eskolara/lanera ez joateaz gain, beste ekintza batzuek osatutako ekitaldi bat dela.

Helduon artean ere, ordea, grebek ezertarako ez dutela balio nahikoa zabaldua dago, eta bukatzen ez den sokaren itxura du gaiak. Nola hitz egin grebaren baliagarritasunari buruz, ardura duenak ez badu horretan sinesten?

Nik sinesten dut grebaren baliagarritasunean. Langileok eskura dugun tresna *potentea* dela uste dut, betiere ondo erabiltzen bada, noski. Goian aipatutako galderei erantzuna emateko gai izan beharko genuke greba deialdi bat dagoenean, baina zenbaitek "ze txapa..." erantzungo digutelako susmoa dut... ■





Heriotza perinatalen eta jaiosteko heriotzaren gaia gizarteratzearen beharraz jakitun, bere lekukotza gordin eta zorrotz kontatu du Maitane Diaz de Zeriok. Ukatutako doluez, haurren galerak ikusaraztearen garrantziaz eta elkartearen jardunaz aritu da BALEIKERekin.

Iaz sortu zen Esku Hutsik elkarteak. Zergatik?

Beren haurrak galdu ostean elkartu ziren ama batzuek Bilbon. Ikusi zuten lagungarria zitzaiela beraien artean hitz egitea. Zure bizipen bera izan duen norbaitek hitz eginda, enpatia hori sentitzen duzu. Gero pandemia etorri zen, eta horrek bultzatu zituen webgunea sortu eta elkarteak bera sortzera. Hasieran tabernetan elkartzen ziren,

kafe tertulia modukoak egiten zituzten, baina, gero, pandemia tarteko halakorik egin ezin zuten, proiektua Internet bidez zabaltzen hasi ziren. Elkartearen helburua da dola prozesuan sortzen diren beharrak asetzea. Zure mina ulertzen du egoera beretik igaro den norbaitek. Bestela ere uler zenezake nire mina, baina, beharbada, ez dakizu zer den haur bat galtzea.

Ni sartu nintzenez pandemia amaitu berri zen. Aurten egin da elkartearen lehen topaketa moduko bat eta beraz, orduan ez genuen elkar ezagutzen, baina betidanik ezagutuko izan bagina bezala izan zen. Hori da elkarteak duen gauza politena. Hego Euskal Herria hartzen du Esku Hutsik elkarteak. Kafe tertuliak hileroko daude, eta Zumaian ere halako zerbait egitea gustatuko litzaidake, Emakumeon* Etxean: hilean behin

"Amonak, amak eta nik, hirurok izan dugu galeraren bat"

MAITANE DIAZ DE ZERIO SARASKETA ESKU HUTSIK ELKARTEKO KIDEA

Heriotza perinatalen eta jaio osteko heriotzen dolu prozesuetan bidelagun izan nahi duen Esku Hutsik elkarteko kidea da Diaz de Zerio Zumaiako bizilaguna. Elkartea halabeharrez ezagutu zuen, hamabi asteko haurdun zegoela egin behar izan zioten abortuaren ondoren, eta haren lana zabaldu nahian dabil orain. Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

elkartu, kafe bat hartu, eta hitz egin. Beharra badago, behintzat.

Ukatu egiten ditugu jaioberrien eta jaio aurretik hildako haurren dolu prozesuak?

Bai, ez da ikusten. Dolu isila dela esaten dugu, ez delako hitz egiten horren inguruan. Galera batzuk oraindik triparik nabari ez denean gertatzen dira, eta familia barruan ezkutatuta geratzen dira. Ez da esaten, ez da kontatzen. Ulertzen dut pertsona bakoitzak dolua bere erara eramatea; batzuek indarra daukate, eta beste batzuek, ez. Baina, egia da, neuri pila bat lagundu didala kontatzeak: berriz biziko bazenu bezala da, baina, aldi berean, pisu bat kentzen duzu gainetik. Konturatu naiz isiltasun horrek ez duela laguntzen. Zumaiako emaginak ere elkartean parte hartzen du. Haurdunaldiari buruzko tailerretan, esaterako, elkartearen berri

ematen du, baina ez da erraza haurdun dagoen pertsona bati galera izan dezakeela esatea. Beharbada ez du entzun nahi. Baina lau emakumetik batek igaro behar izaten du egoera horretatik; datu altua da. Eta hori esan egin behar da, behintzat prestakuntza bat jasotzeko eta jakin dezazun hau gertatzen dela, eta gertatzen bada, zer datorren gero.

Ezustekoa izan zen zure kasua, ezta?

Hamabigarren asteko ekografia egitera joan nintzen, eta esan ziguten Ekaitzen bihotzaren erdia garatu gabe zegoela. Bizitzarekin bateraezina zela, alegia. Momentu hartan bihotza ondo egon arren, aurrerago geratu egingo zela, edo jaio ondoren ez zuela indarrik izango.

Abortu legal bat egin zidaten. Aukera hori eman zidaten, eta hartu egin nuen. Hau hirugarren haurra zen, eta badakit haurrak nolakoak diren.



Jaio izan balitz geldirik egon beharko zukeen, eta esaiozu haur bati geldirik egoteko... Hori, kasurik onenean.

Eta gero, zer?

Ospitalean azaltzen dizkizute abortuaren pauso guztiak, baina inork ez ditu azaltzen etxera zoazenean zer datorren. Ni psikologoarengana joaten nintzen orduan, eta hark eman zidan Esku Hutsik elkartearen berri.

Nik abortua egin ostean ezagutu nuen elkarte, eta nahiko nuke jendeak aurrez jakitea zer aukera dituen. Hala, zure abortua zuk nahi bezalako izango da. Abanikoa oso zabala da, eta neu, adibidez, gauza asko egin gabe geratu nintzen, ez nekielako egin zitezkeenik ere. Argazkiak ateratzea, gorpua jasotzea... Gerora izan dut aukera horien berri; berandu.

Nik, adibidez, haurrei azaldu nahi nien anaia bat izan zutela, baina nola azaldu hori 7 eta 4 urteko haurrei? Hamabi asteko haur bat txikia da; guk ikusi genuen, baina haiek ez. Oso zaila da hori azaltzea. Gainera, dolua familian eramaten da; nire seme-alabek ikusi naute negarrez.

Eta, kalean?

Haurrak, haur kotxeak eta haurdun dauden pertsonak: ez duzu besterik ikusten. Hark berea, bai; nik, neurea, ez. Hori ere gogorra da, eta amorrua sentitzen da. Hori ere pasatu egin behar da, eta oso prozesu gogorra da. Ohikoa da galera izan duenaren ahizpa edo lagun bat haurdun egotea, adibidez. Eta gerta daiteke galera izan duenak zoriondu nahi ez izatea bestearen jaiotza. Nirea jaio da, baina hilda jaio da. Sentitu dugunok ulertzen dugu min hori. Igual ez daukazu indarrrik beste pertsona hori zoriontzeko, eta hori ulertu eta errespetatu beharra dago. Ospitaleetan ere, zeure galerarekin zauden bitartean, alboan jaioberri bat duzu negarrez. Doluan dagoen familia bat ezin da korridore berean sartu. Zaindu egin behar dira gauza horiek.

Zer eskatzen diezue erakunde publikoei?

Proiektu batzuk bultzatu nahian gabiltza. Doluan egiten diren argazkien bilduma bat daukagu, eta horiek erakutsi ondoren mahai inguru bat egiten dugu, jendeak jakin dezan zer gertatu den. Hori, esaterako, udalekin hitz egin eta herriz herri mugitzen ari gara.

Urriaren 15a Dolu Perinatalaren Nazioarteko Eguna da, eta eraikin publikoak piztea gustatuko litzaiguke. Bilbon, Gasteizen eta Donostian

pizten dira, eta Zumaian ere hala izatea nahi genuke.

Ospitaleetan, bestalde, oroitzapen kaxak egiten ditugu. Familia batek galera bat duenean, horri kaxa bat ematen diogu, agurra emateko. Ospitaleak hatz aztarnak ere ematen ditu, nahi izanez gero. Zakutxo batzuk eta txapelak ere egiten ditugu, haurrak horietan biltzeko. Niri ontzitzo batean eman zidaten haurra, eta ez da toki egokia haur bat jartzeko.

Inkubagailu hotzak lortu nahi ditugu, haurra bertan sartu eta familiak lasai agurtu ahal izan dezan.

Doluan bidelagun izatea da elkartearen helburuetako bat. Gizartean eragitea ere bai?

Erakutsi nahi diogu gizarteari gauza hauek aldatu beharra dagoela. Badirudi ezin dela honi buruz hitz egin. Askotan entzun izan dugu: "Gazteak zarete, edukiko duzue beste bat". Eta, ez. Nire haurra nirea zen, eta ez duzu haur hori inoiz ordezkaturiko beste batekin. Bakarra da. Nik bi ume ditut, eta bat bat da, eta bestea, bestea.

Aproposak ez diren hitz asko esaten dira.

Momentu batzuetan isiltasun batek edo besarkada batek gehiago balio dezake.

Medikuengandik ere entzun izan ditugu halakoak. Eta ez badut beste haurrik izan nahi? Norbaitek galdetu al dit niri ea nahi dudan? Beharbada, ez nago prest.

Gero eta gehiago entzuten da, edo gero eta gehiago gertatzen da?

Beti gertatu dela esango nuke. Gure amak galera bat izan zuen ni eduki aurretik, adibidez. Nik uste dut lehen gehiago gertatzen zela, ez zituztelako gaur egun ditugun aurrerapenak. Elkarte adineko jende asko daukagu; senarra hil, eta haren doluarekin azaleratzen zaizkie haurren galerak. Dolua egunen batean bizi egin behar da, atzeratu arren. Gerta daiteke momentuan ezin izatea, baina uneren batean aterako da.

Zergatik isiltasun hau, zer gertatzen da?

Zenbat haur hilko ote ziren etxeetako erditzeetan? Gure amonak izan zuen.

Lehenengo biak bikiak ziren: bata hilda jaio zen, eta bestea egun batzuetara hil zen. Gure amonari gertatu zaio, gure amari ere bai, eta niri ere bai. Lau emakumetik bati gertatzen zaio. Zumaian, zenbat izango dira?

Amek bakarrik parte hartzen al duzue elkarteetan?

Ez. Dena den, polita litzateke aita askoz ere gehiago sartzea. Kafe tertulietan gertatu izan da

noiz edo noiz gizonezkoren bat agertzea, eta niretzat oso polita da. Bikotea bera elkartzea polita da, esan nahi du batera daudela kontu horretan. Nire senarra ez da sekula izan; egia da, hala ere, nire dolua askoz ere luzeagoa izan dela. Azken finean, guk daramagu barruan haurra, eta guk bizitzen dugu. Beste era batera eramaten dute beraiek.

Emaginak eta ginekologoak ere badaude elkartean, behar bat dela uste dutelako. Esaten dute lana oso gogorra dela, ikusten dutelako batzuetan ez dakitela nola lagundu familia horiei. Ez daude prestatuta. Formakuntzak eskaintzen ditugu ospitaletan erakusteko zer esan, zer tratu eman...

Noiz bukatzen da dolu prozesua?

Gogorra da, eta ez da bukatzen. Eraldatu egiten da. Mina tximeleta bihurtu behar da, hori esaten dugu elkarteko amek. Birsortu egiten gara; ez gara lehengoak izatera itzultzen. Gure sinboloa tximeleta da: ospitalean izenaren ondoan tximeleta bat ikusten baduzu, horrek esan nahi du galera bat izan duela. Edo ikusten baduzu haurraren sehaskan ostadar bat, esan nahi du galera baten ostean etorri dela. Eta galdutako haurrak izarrak bihurtzen dira. ■■■



Zerbitzuak hobetzeko eta gizarte-politika hobeak izateko **ticketa. BAI.**



TicketBAI, Gipuzkoa osoa batzen duen tresna aurreratua eta solidarioa, etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko.

gipuzkoa.eus/ticketbai



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ORAIN**
ES FUTURO



Zumaiaren bihotzean

Herri baten erdiguneak zerikusi gutxi du herri horretako erdigune geografikoarekin. Zumaiari dagokionez, gutxik pentsatutako tokian dago herriaren bihotza: Artadi auzoan. Urtarrilean egin zituen kalkuluak Jose Ignacio Murua topografo pasaiatarrek, eta ekainean jarri zuen oroigarri xumea toki zehatzetik gertu Miguel Zubimendi zumaiarraren laguntzarekin.

Testua: **Onintza Lete Arrieta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.



Jose Ignacio Murua eta Miguel Zubimendi, joan den astean, Artadin, Zumaiako erdigune geografikoa markatzen duen ikurra seinalatuz.

Zabala da mundua, eta sakona; hala da afizioen zakua ere. Badaki zerbait biez Jose Ignacio Murua pasaiatarrak. Topografoa eta irakaslea izana, afizio berezia garatu du azken urteetan: herrien erdigune geografikoa kalkulatzeko. Gipuzkoako herri guztietakoak osatu ditu, eta batzuetara joan da, toki zehatzean edo inguruan seinalea jartzera.

Muruaren lana Miguel Zubimendi zumaiarraren belarrietara ere iritsi zen, eta "joño!", pentsatu zuen, "Zumaiakoa jakitea ederra litzateke, bada". Halaxe, biak Nagusilan boluntarioen elkartearen zebiltzanez, harekin harremanetan jarri zen, eta Zumaiako erdigune geografikoa kalkulatzeko eskatu zion.

Aurtengo urtarrilean aurkitu zuen puntu zehatza Muruak, eta ekainean, Zumaiara etorri behar zuela aprobetxatuta, lagundu zion Zubimendik GPSak markatzen zuen tokiraino. Kokapenak ezustean harrapatu zuen zumaiarra bera. "Inoiz ez nukeen pentsatuko hori denik herriko erdigune geografikoa", esan dio kazetariari. Izan ere, erdigunea Artadin dago, zuhaitzez inguratutako belardi malkartsu batean eta paraje zoragarri baten aurrean. Puntu zehatza iristeko zaila den maldan egonda, Muruak eta Zubimendik erabaki zuten ehun metro gorago jartzea ikurra, herritarrek ikusteko moduan. "Zumaiak 11 kilometro koadro ditu, eta beraz, ehun metro desbideratzea ez zait larria iruditzen", azaldu du Muruak.

Metodikoa eta txukun-txukuna dirudi bere lanean pasaiatarrak. Elkarrizketara karpeta eta guzti agertu da, eta barrenean ditu

erdigune geografiko bat kalkulatzeko erabiltzen dituen tresnak: herriko mugak zehaztuta dituen mapa inprimatuta; lauki txikiak dituen orri gardena; kartulina bat herri bateko formaren arabera moztuta; jostorratza eta haria gero demostrazioa egiteko; erregela; Zumaiako erdigunea kalkulatzeko egin dituen ariketa matematikoen orria, etab. Eta, noski, GPS gailua ere badarama patrikan, baita oharrak hartzeko blok txiki bat eta arkatza ere.

Metodoa, eskuz zein digitalean

Irakaslea izan zenez, atera ditu orriak, eta eman ditu azalpenak, baina solasaldiaren une batean, kazetariarentzat funtsezkoa den zerbait esan du: "Inportanteena da jakintzei buruzko oinarri bat edukitzea. Hori edukiz gero, beste guztia uler daiteke, eta ikas daiteke". Oinarri hori behar, ordea... Matematikako ariketak egiteko alferrik litzateke irakasleak esandakoak buruz ikastea. Hark esandakoak azaltzeko, ordea, grabagailuak jasotakoak hemen idaztea besterik ez da behar:

Azalera baten erdigune geografikoa kalkulatu nahi bada, aurrena, herri horretako mapa hartu eta mugak markatu behar dira. Ondoren, orri koadrikulatu bat jarri behar zaio gainean, eta beheko ezkerreko izkina hartu kalkulua egiteko abiapuntutzat, X eta Y markatzeko. Behin hori eginda, figuraren erdigunea kalkulatu behar da. Herri batek inoiz ez du edukiko forma geometriko estandarra; ez da izango borobila, hirukia edo laukia. Horregatik, figura hori, mapa hori, zati txikiagoetan zatitzen du Muruak, baina zati horiei ematen die lauki edo hiruki forma, kalkuluak egin ahal izateko. Horretarako orrialde koadrikulatuak erabiltzen ditu. Horietako bakoitzaren erdigunea kalkulatu du, baita azalera ere. Beti erreferentziak izaten dira hasierako X eta Y horiek: koadroka kontatu behar dira, eta ondoren, azalera. Gero, biderkatu egiten du X koordenada horren azalerarekin, eta Y koordenada gehitu. Zati bakoitzarekin hori egin, eta ondoren, zati guztiak batu behar izaten dira. Azkenik, batukari guztiari X kendu eta zatitu egiten da area guztietako azalerarekin, eta horrek ematen du emaitza. Y ateratzeko, berriz, Y guztiak batu, eta hori ere azalerarekin zatitu behar da. Horrela lortzen dira herri baten X eta Y koordenadak; puntu horretan egongo da erdigune geografikoa.

Muruak argi utzi nahi izan du erdigune geografiko hori oinplanoan dela. "Zerikusirik ez dauka erliebearekin; sistema hau barizentroa deritzona da".

Emaitzak egiaztatzeko, gustatzen zaio euskarri fisikoa erabiltzea. Kartulina bat erabiltzen du, herri horretako formen arabera moztu duena, eta erdigune geografikoan puntu lodi bat jartzen du. Ondoren, jostorratza eta haria hartu -hariari muturrean pisua jarrita-, eta figuraren ertz batean sartzen du. Hari hori soltatutakoan, horrek beti lerro bat marraztuko du, eta beti, puntuaren paretik pasatuko da. Berdin beste ertz batean sartzen badu jostorratza.

Muruak esan du gero, behin datuak esku artean dituenean, geografia digitala erabiltzen duela –GeoEuskadi.eus webgunearen bitartez– eta hark emandako informazioarekin GPSa hartu, eta hala joaten da herri bakoitzeko erdigune zehatza aurkitzera.



Herriko erdigune geografiko zehatzetik ikusten den paisaia. Ezkerraldean, Urola ibaiaren irlak. Eskuinaldean, atzealdean, herria eta itsasoa.

Ikusteko moduan

Muruak gogoratu du "nahikoa kostatu" zitzaieela Zumaiako erdigunea topatzea. Zubimendik lagundu zion horretan. Artadiko aparkalekua eskuinetara utzita, Gorostiagako bidea hartu behar da; 500 metrora, eskuinaldera dagoen lehenbiziko bidea hartu, eta 60 metrora eskuinera egin behar da, ezkerretara utzita Oikiarako bidea. Gorriti familiaren belardia dago han, eta atzealderaino joanda aurki daiteke Muruak eta Zubimendik jarritako ikurra. Plastikozko grisezko hodi antzeko bat da, eta goialdean erdigunea kalkulatu zuen eguneko data ageri da: 2022-01-18, alegia. Hodian idatzita dago Zumaiako erdigune geografikoa hori dela.

Ez dago toki zehatz-zehatzean, ordea. "GPSak markatzen duen tokia malkartsua da, artadi batean dago, eta ez da toki irisgarria. Pentsatu genuen ezkutuan geldituko zela, eta hobe zela beste toki batean jartzea", azaldu du Zubimendik. "Ikurra ehun metro mugitzeak ez du inporta 11,28 kilometro koadroko azalera batean, eta hori eginda, jendeari aukera ematen diozu tokia bisitatzeko", jarraitu du Muruak. Tokatu zitekeen ibaiaren erdian egotea erdigunea, eta kasu horretan ere beste tokiren batean jarri beharko litzateke ikurra derrigorrean.

Hain zuzen, erdigune horretan kokatu eta aurrera begiratuta, aurrez aurre mendiak daude eta, zuloan, Urola ibaia eta han Usurbiribillaga irlak. Paisaia zoragarria bistaratzen da, eta tarte batez ari begira egon dira pasaiatarra eta zumaiarra.

Abentura bat edo beste ere izan zuten erdigunea aurkitzeko egindako txangoan, terreno partikularretatik igaro behar izan zutelako, eta jabe batek ez zuelako ondo hartu bi erretiratuak bere



lurretan ibiltzea. Kontuak kontu, Zubimendik azaldu du denbora gutxi behar izan zutela puntua aurkitzeko. "Erraza izan zen".

Gero, zertarako?

Topografoak konplexurik gabe aitortu du herri baten erdigune geografikoa kalkulatzek ez daukala erabilera praktikoa handirik. Filosofikoa da duen balioa eta, zentzu horretan, Muruarentzat asko balio du. "Niretzat badu garrantzia herri batek jakitea non dagoen bere benetako erdigunea, eta beti pentsatu izan dut idazlea banintz puntu horretara joango nintzatekeela idaztera, eta han aurkeztuko nukeela liburua ere. Izan ere, puntu horrek leku guztiak ditu konpentsatuak. Hau da herri batentzat bidezkoa, errotazio-ardatza".

Muruak hainbat burutazio eta ideia ditu idatziak, eskuz, erdigune geografiko baten esanahi filosofikoaz, baina ia-ia lotsatuta, baxu-baxu, irakurri ditu.

Zubimendik nabarmendu du "ezjakinean", zaila dela esatea non dagoen herri baten erdigunea. "Ertz batean ondoko herria ia bertaraino sartuz daukazu, baina beste ertz batean kilometroak daude ondoko herrira iritsi aurretik. Artadiko plazatik, esaterako, ezkerraldera Zestoa daukagu, Bedua, kilometro eta erdira edo. Iparraldera begiratuta, berriz, Deba daukagu bi kilometro-bi kilometro eta erdira. Gure atzean, ekialdera, bi kilometro eta erdi edo hirura iristen da Zumaia, Getariako Meagaraino. Ipar ekialdean, Getaria kilometro batera daukagu, Caracas baserriraino sartzen da". Horregatik, Zubimendik uste zuen erdigunea Oikia aldera egongo zela, baina toki bat zehaztea "oso zaila" dela uste du, Muruak egin dituen kalkulurik gabe.

**ZUMAIK 11,38
KILOMETRO KOADROKO
AZALERA DU; IKURRA
PUNTU ZEHATZETIK
EHUN METRORA DAGO**

**GIPUZKOAKO HERRI
GUZTIEN ERDIGUNEAK
DAUZKA KALKULATUTA
JOSE IGNACIO MURUA
TOPOGRAFOAK**

PUBLIZITATEA

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-56 21 52

Aita Mari
JATE TXEA
ZUMAIA

679 10 31 67
Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijatetxea@gmail.com

f i

AIZPURUA
LIBRURU
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladura-

696 72 61 88
943-14 32 61

Amama Taberna

tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe · Horiz Klinika

Ardantzabide, 3^a behea • Zumaia
943-54 35 70 • 688 73 38 56

OKINDEGIA
Arkupera

Nausia, 2 - tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OCI-EDER

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69

BOSCH
Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika Motorraren mekanika
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behea
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

finés
francés
euskara
ingelese
español
italianoan
suomi basc
gaztelu finoes
francés anglés
katalan francés
castellano finoes
inglés basc katalan

BAKUN

ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 tel./faxa 943-14 83 06
20749 Arroa bakun@euskalnet.net

Basadi albaitaritza

Albaitaria
Itxiki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
velernaria@basadiclinivet.com
www.basadiclinivet.com

Golpez: 11-13 / Arratsaldeko: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia
Larriak/letrako: 605 72 87 07 Etkez etxeko zerbitzua

BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKAO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16

LIZZE

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

Herriko beste erdiguneak alde zaharren inguruan egon ohi dira; eremu horiei deitzen zaie *erdigunea*, baina Muruari inoiz ez zaio gertatu erdigune horrek bat egitea erdigune geografikoarekin. Bitxikeriak izaten dira, ordea. "Tokatu zait herriren batean herri horren erdigunea herritik kanpora egotea. Herriak L forma baldin badu, esaterako, hori pasatzen da. Behin bakarrik gertatu zait hori, eta erabaki nuen herri horren ertz batean jartzea erdigunea, berezko ahelik gertuen".

Beste batzuetan, gerta daiteke herri batek herritik kanpora ere edukitzea lurrak. Halakoetan, kanpoko lur horiek ez ditu kontuan hartu Muruak. Zumaia inguruan, Zarautzek, esaterako, Elcano auzoa dauka. Hori ez du kontuan hartu haren erdigunea kalkulatzean.

Gipuzkoako guztiak kalkulatu


Muruak banaka-banaka egiten ditu herrien kalkuluak. Batena amaitu arte, ez du hurrengoarena hasten. Azaldu du Gipuzkoako herri guztiak dituela amaituta, nahiz eta guztiak ez dituen markatu oraindik. "Markatzeak esan nahi du herri horretara joan eta puntu zehatza aurkitzea. Zumaian, graziak Miguelek lagundu didan". Inguruko herri batzuetakoak ere markatuta ditu dagoeneko: Zarauzkoa, Oriokoa eta Getariakoa, esaterako.

Afizioa Felix Iasari zor diola esan du Muruak. Hark kalkulatu omen zuen Euskal Herriko erdigunea (Andia mendilerroan), baita Gipuzkoakoa ere (Bidania). "Lagun-minak ginen, eta hil zenean, handik denbora batera pentsatu nuen neuk ere kalkulu horiek egitea".

Herrien erdigunean hodia jartzeaz gain, udal agintariei horren berri ere eman izan die Muruak; Oiartzunen eta Erreterian, zehazki. Oiartzungo Udalak, gainera, ormigoizko plaka jartzea erabaki zuen toki horretan, Muruaren lana aintzat hartuta. "Ilusio handia" egin dio horrek. Zubimendirentzat, ondo dago udalek halako erabakiak hartzea, "guk jarritako hodia edonork ken dezakeelako. Ormigoizkoa, aldiz, betirako geldituko da".

Zumaiarrak eta pasaiatarrak aitortu dute oraindik ez dutela hitz egin ez ikurra jarrita dagoen lursailaren jabeekin, ez Zumaiako Udalarekin. Jabeak ez dira herrian bizi, izan ere. Udalari dagokionez, Zubimendik uste du polita litzatekeela horrek ere plaka jartzea hodia dagoen tokian.

Pilota udalaren teilatuan gelditu da, beraz. ■■■



Herriko formaren arabera moztutako kartulina.

Erdigunea erakusten duen plastikozko hodia.

Herriak izan duen bilakaeraren lekukoa

Maria Teresa Ibarra, administrari ohia udaletxean eta organista ohia parrokian

Lau hamarkada luzez administrari lanak bete ditu udaletxean, eta San Pedro parrokiako organista ere izan da urte hauetan guztietan. Erretiro garaia iritsita, udazkena heldzearekin batera esan dio agur Maria Teresa Ibarrak bi ardura horiei. Ordularirik gabeko bizitzari ekingo dio orain.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Zumaiak bizi izan dituen aldaketen, bilakaeraren eta hazkundearen lekuko izan da Maria Teresa Ibarra Gorostola (Zumaia, 1957). Makina bat datu, dokumentu eta zerrenda pasatu dira bere eskuetatik lanean azken 45 urteotan. Udalean

beharrean hasi zenean, 1978. urtean, Zumaiak 7.400 bizilagun inguru zituela du gogoan; erretiroa hartu duenean, berriz, 10.200 biztanle ditu herriak. Ondo gogoan du zer egunetan heldu zen herria 10.000 bizilagunetara. "2017ko martxoaren 16an iritsi ginen 10.000 biztanle izatera. Ez dut inoiz ahaztuko", esan du koilaratxoarekin kafe ebakiari bueltak ematen dizkion bitartean.

Ikasketak herrian bertan egin zituela azaldu du Ibarrak. "Mojen kolegioan ikasi nuen, eta batxilergoa han atera nuen. Karrerarik ez dut ikasi; garaiak desberdinak ziren, eta orduan ez zegoen aukera handirik". Udaletxean lanean hasteko egin zuen azterketa ere gogoan du. "Gobernu Zibiletik gizon bat etorri zen; ez dut


haren izena gogoratzen, baina bai bere aurpegia. Olivetti idazteko makina handi batekin etorri zen. Zekarren liburua zabaldu zuen, eta han agertzen zenari buruz galdetu zidan. Gustuko gaia nuen, eta gaingitu egin nuen. Gero, idazlan bat egin nuen Zumaiari buruz. Hura ere egin nuen, eta barrura".

21 urte zituen udaleko administrari lanetan hasi zenean. "Garai hartan hiru langile besterik ez ziren udaletxean: Jexux Olaizola *Largo*, Manolo Azkue eta Peio Usandizaga. Gero, idazkaria zegoen, Edmundo Jesus Etxegoien Arteaga. Alkate, berriz, Eugenio Arrizabalaga zen lanean hasi nintzenean". Udaletxean lanean aritu den urteetan zortzi alkate eta bederatzi idazkari ezagutu dituela esan du Ibarrak. "Bakoitzak bere berezitasunak zituen; ez agintzeko, baina bai lan egiteko moduan, betiere, legearen barruan".

Gaztea zen lanean hasi zenean, eta udaletxean aritzen zen emakume bakarra ere bazen. "Galdetu izan didate ea sartu nintzenean beldurrik izan nuen: sekula ere ez. Oso ondo tratatu ninduten. Gazte-gaztea nintzen, ez nekien Administrazioa



irrimarra



nolakoa zen, beraiek konfiantza eman zidaten, eta nituen zalantza guztiak argitu zizkidaten". Orain Bake Epaitegian eramaten dute erregistro zibila; garai hartan, ordea, udaletxean egiten zen, eta ardura Ibarren esku utzi zuten. "Leihatila ondoan jarri ninduten. Udaletxean orduan telefono bakarra zegoen, Manoloren mahaian, eta bera ibiltzen zen deiak pasatzen".

Gestioaren bat egitera udaletxera bertaratutako jendea ere artatu du Ibarren urte askoan. "Jendaurrean egotea aberasgarria da: jendea ezagutzen duzu eta atetik sartzen denerako badakizu zertara datorren eta zureganako zer jarrera duen. Baita zuk berarekiko ere". Sarritan, baina, etxe barruko lanak ere egin ditu, eta urte batzuetan, biak, jendaurrekoak eta barrukoak.

Hauteskundeez ere arduratu izan da urte hauetan guztietan; ohikoa izaten zen hauteskunde mahaian bueltan ikustea, zerrendak eskuan zituela, herritarren nahiz mahaikideen zalantzak argitzen. Hilerriko kontuak ere garai batean udaletxetik eramaten zituzten, eta familiartekoren bat edo lagunen bat galdu zuten pertsonekin ere tratatu behar izan du. "Oso gai delikatuak da; beste sentimendu bat behar da hilerriko gorabeherak eramateko. Orduan tanatoriorik ez zegoen, eta jendea udaletxera etortzen zen. Seigarren zentzu bat behar duzu jende hori atzenditzeko".

Demokraziaren lehen urteetan hasi zen udaletxean lanean, eta, orokorrean garai gorabeheratsua izan bazen ere, lasaitasunez bizi izan zituela esan du. Gatazka armatuarekin lotutako urteak, horiek bai, "urduritasun handikoak" bezala gogoratzen ditu. "Sekula ahaztu ez dudana Joxe Mari Korta hil zuten eguna izango da. 2000ko abuztuaren 8a izan zen. Zuzen-zuzenean bizi izan genuen hura, izugarria

izan zen. Pasa dudan unerik okerrera izan zen, tristea, inpotentzia handikoa. Oso-oso gogorra izan zen".

Udaletxean bertan emandako aldaketen lekukoa ere izan da. "Orduko udaletxea eta oraingoa ezin dira konparatu. Ez langile kopuru aldetik, ez lana egiteko moduagatik".

Musikaren plazera

Musikak ere elikatu du Maria Teresa Ibarren izaera. Zaletasun hori bere bigarren abizenetik dator kiola azaldu du, Gorostolatik. Parrokiako koruko zuzendari izan zen Carlos Gorostolaren iloba da bera; haren etxean bizi izan zen urte batzuetan, *Viva España* izenez ezagutzen zen Amaiaiko plazan. "Elektrizista zen osaba, eta etxera bueltatzen zenean, mahaiaren bueltan eseri, eta partiturak egiten hasten zen. Txikitatik ezagutu dut hori; gure etxean asko bizi izan da musika, asko". Fortuno eta Inaxio Gorostola osabak ere koruko kideak izan ziren, eta "emakumeak onartu zituztenean, izeko Carmenek eta gure ama Rosariok ere koruan abestu zuten".

Maria Teresa Ibarra

- **Adina:** 65 urte.
- **Ikasketak:** Batxilergoa
- **Lanbidea:** Administraria Zumaiako Udalean, eta organista San Pedro parrokian
- **Administraria ez banintz...** Organista ere izan naiz. Musikarekin lotutako zerbait egingo nukeen lehenago edo beranduago.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** afizioa, mendira joatea dut. Gero, beste kapritxo batzuk ere baditut.

Piano ikasketak egin zituen, mojetan lehenbizi, eta Donostiako Kontserbatorioan ondoren. Denborarekin, parrokiako organoa jotzeaz ere arduratu da. "1975ean Don Angel Araolaza apaizak erretiroa hartu zuenean, Mari Carmen Azpeitiari eskaini zioten organoa jotzea. Urte berekoak gara biok, Mari Carmen eta biok, eta ni ere parrokiari ibiltzen nintzen, koroan. Behin, berak ezin zuela ezkontza batean jo, eta galdetu zidan ea nik joko nuen organoa. Hasieran kili-kiliak sentitu nituen, baina jo nuen, eta gustura sentitu nintzen".

Azpeitiak jarraitu zuen organista titular denbora batez, baina ezkondu zenean eta familia izan zuenean, Ibarraren esku utzi zuen ardura. "Urte ederrak" izan zirela du gogoan. Elizkizunetan jotzen zuen organoa, koruarekin ere bai, eta kontzertu batzuk ere eman zituen garai hartan. 1990eko hamarkadaren erdi aldera, baina, arazo batzuek zirela medio, abesbatzarekin gehiago ez jotzeko erabakia hartu zuen. "Mari Carmen hasi zen abesbatzekin jotzen. Egun handi eta solemneetan berak jotzen du organoa; beste elizkizunetan-eta nik jo izan dut, eta Iker

Gonzalez Kobeaga ere aritzen da organista lanetan".

Organoa jotzea plazera dela dio. "Kontzertu gutxi eman ditut, baina jotzen dudanean izaten den isiltasun hori... Horrek esan nahi du nik sentitzen dudan hori jendeak jaso egiten duela, eta barneratzen duela. Hori egundoko garaipena da". Tamalez, lotua ere badela dio. "Heriotzak ez du ordurik, eta behin baino gehiagotan planak aldatu behar izan ditut hiletengatik. Hori, zauden tokitik itzultzeko aukera duzunean; bestela, Mari Carmeni deitu behar ea libre zegoen galdetzeko. Beti adi egon gara familian: kalean eskelaren bat jartzen zutenean deitu egiten zidaten. Oporrengatik zortzi edo bederatzi egunerako kanpora joaten ginenean, aurrez Mari Carmeni abisatzen nion".

65 urte bete zituen irailean, eta erretiroa hartzeko unea zela ikusi zuen, bai lanean, baita parrokiari. "Lanean hasia nintzen horretaz pentsatzen, baina parrokiakoa geratzen zitzaidan. Garbi neukan biak utzi behar nituela, eta hala egin dut. Neure erabakia izan da, eta poz-pez nago izan dudana bizitzarekin. Zorte handia izan dut, eta altxorra da hori". ■■■

**NON DAGO
BALEIKE**

Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkatututa aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali urriaren 21a baino lehen.

Saria: TIPITAKin bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Iraileko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkatututa zegoen asmatu behar zen: 16. orrialdean zegoen ezkatututa, eta **Istar Gonzalez** bazkidea izan da irabazlea.



BALEIKE

IZAN KA

BALEIK

ALOKAGAI
321213 123
SALGAI

HOTZIKAR
TOKIKO MERKATARITZ

IRAKUR ZALE!

LURRARI ETA
NATURARI LOTUTA

Batzaragoa aurten martxoan...
Zuzenbidea...
Zuzenbidea...
Zuzenbidea...

BALEIKE

BIZITZA BERRIA

S BAT AURRERA

ATSENA EMATEKO
BORRUKA

Etxetik ohiturak
sortzen

BALEIKE

UKT

URROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA

B E K O K O M U N I K A Z I O T A L D E A K O O P E R A T I B A

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOPELATIBOAK

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOPELATIBOAK

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOPELATIBOAK

**ETORKIZUNA
ELKARTASUNETIK**

BALEIKE

ERDITU DUBA
SAREA



ABBAREKIN
MERRIA DANTZAN

Eskutik he
inklusia



EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU

bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

BALEIKE

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Gozoki gehiegi jaten ari zara!



MIREIA CENTENO
PSIKOLOGOA

Badakigu 4-5 urteko haur batek bere bulkadak kontrolatzeko gaitasuna oso mugatua duela, bere garuna garapen prozesuan dagoelako. Eta hori asko konpliketzen da haurrari aurrean jartzen diogun estimulua oso erakargarria baldin bada.

Gozokiak oso estimulu indartsuak dira. Azukre asko dute, eta normalean osagai horrek gure gorputzean eragin handia izaten du, epe motzera energia asko sortzen dutelako batez ere. Oso erakargarriak egiten zaizkigu. Beraz, argi geratzen da haurrak eta gozokiak nahiko konbinazio konplikatuak direla. Gainera, askotan, produktu horiek gure egunerokoan oso eskura ditugu: *merendolak*, amamak emandakoak, eskola ondoko kioskoa edo etxera bideko denda...

Guraso bezala, asko arduratzen gaitu gure haurrek gozoki edota azukredun elikagai asko jateak, eta horregatik, mugak jartzen aritzen gara etengabe. Egia da, orokorrean, produktu hauek gure gizartean gehiegi kontsumitzen direla eta horrek alarma batzuk piztea eragin duela, kasu batzuetan produktu horien kontsumoa modu ezberdinetan zigortzeraino, batez ere kritikarekin edota

epaiketekin. Noski, horrek guztiak gatazka izugarria sortu du.

Eta ultraprozesatu hauek hor daude, gustatzen zaizkigu eta kontsumitzen ditugu, eta horregatik, desiratzen ditugunean, erosten ditugunean edo baimentzen ditugunean, maiz, errua azaltzen da helduengan eta haurrengan. Zer egin dezakegu, beraz, erru hori ezabatu eta ez azaltzeko?


- Iragarkiak ezabatu: haurrei zuzenduriko iragarkiak telebistako kateetan edo Youtubeko eduki batzuetan egoten dira. Erabili iragarkirik gabeko plataformak.
- Ez eduki horrelako produktuak egunero eskura. Ikusten ez baditugu gutxiago kontsumitzen ditugu.
- Saiatu eguneroko kontsumotik kentzen: adibidez, ez erabili meriendarako edo gosaltzeko.
- Beharrezkoa ikusten baduzu, haurrei horrelako produktuak eskaintzen

**ETXEAN HALAKO
PRODUKTUAK EGON
DAITEZKE, BETIERE
EGUNEROKORAKO
EZ BADIRA**

dizkien pertsonekin hitz egin eta beste ideia batzuk proposatu. Gogoratu, askotan, aitona-amonek ez dutela guk dugun informazioa, eta ezjakintasunetik abiatzen direla.

Baina, era berean, kontuz produktu hauen tabuekin:

- Zuen egunerokoan egon daitezke, baina kantitate txikietan. Adibidez Lacasitos pote osoa eskaini beharrean, egunean 3 jateagatik ez da ezer gertatzen. Edo gusanito poltsa txikiak maizago eskaini poltsa handiak eskaini beharrean.
- Produktu hauen bertsio osasuntsua egiten ikasi sukaldean. Gaur egun, ez zaizkigu ideiak falta sare sozialetan.
- Disfrutatu tokatzen denean. Noski, batzuetan askotan tokatzen da: Gabonak, urtebetetzeak... Baina, tokatzen bada, saiatu ez epaitzen.
- Saiatu zeuk kontsumitzen dituzunean ere epaiketarik ez egiten, disfrutatu horiek kontsumitzen.
- Saiatu ez erabiltzen sari bezala. Eta saiatu ez galarazten zigor bezala. Etxeko erosketa zerrendan ere horrelako produktuak egotea aukera bat da; esan bezala, betiere, egunerokorako ez badira. ■■■



GAZTAINA ERREAK,
ZER DELA ETA?

BIZIDUNEN ARTERA
GOAZ BISITAN ETA EZ
NUKE ESKU HUTSIK
JOAN NAHI


Engainagarriak

Bederatzi zati hauetatik bost engainagarriak dira, hau da, ez dira zehatz-zehatzak edo ez datoz bat irudi nagusiarekin.



Apaindu eta margotu.

GAU BELTZA



Labirintoa

Gure Maripurtzil eta Peloziri santa eskean doaz, baina aukeran, nahiago dute gutizia gozoa jaso, gaztaina baino. Zein ote da goxokietaraino eramango dituen bidea? Aurki ezazu.

| HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA | | | | | | |
|---|---|--|---|---|---|---|
|  |  |  |  |  |  |  |
| A | B | C | D | E | F | G |
|  |  |  |  |  |  |  |
| H | I | J | K | L | M | N |
|  |  |  |  |  |  |  |
| O | P | Q | R | S | T | U |
|  |  |  |  |  |  |  |
| W | X | Z | . | ! | ? | |

ISPILOTXO, ISPILOTXO...

ET, ET, ET, HORI GABONETAKO ABESTIA DA, ETA HALU GAU BELTZA DA!

GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
TXIPLI-TXAPLA PUN...

ETA GOXOKIRIK
EZ AL DA
BATERE?

KAKA!
EZ DUT
PUTZIK
IKUSTEN




Gau Beltzak duen magiaren eragina izango da agian, baina gure laguntxoak ez dira ongi ispiatzen. Aurki itzazu aldeak. Bederatzi dira guztira.

Zer esaten ari ote da neskatoa? Jarri marrazkitxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia alboko hizki-marrazki alfabetoari begiratu, eta berehala jakingo duzu.



Zer ote?

Hildakoak gogoratzeko pizten den gauza honek zer izen du? Jarri marrazkitxo bakoitzari dagokion izena, hizki hizki, alboko lauki zurietan. Gero, lauki gorrietan gelditu diren letrak irakurri, goitik behera.



| | | | | |
|--|---|---|---|---|
| | A | B | | |
| | G | | | R |
| | | | Z | |
| | H | | | X |
| | H | Z | D | |
| | K | | | L |
| | K | | | |
| | | | T | Z |
| | H | | R | R |
| | | | T | |
| | | | | A |

Mezu gordea



Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

Julian Amenabar

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Zestoan jaio nintzen 1970ean. Hiru urte egin nituen han, gure gurasoek taberna bat hartu zuten arte Azpeitian. Zumaian egin dut bizitzaren parte handiena, baina oraindik ere azpeitiarra sentitzen naiz, adarra jotzeko bada ere. Zestoarra ez, nahiz eta jaiotzez zestoarra naizen, sekula ez naiz sentitu zestoarra. Etxean borroka hori daukat, andrea zeharo zumaiarra da eta. Baina ondo eramaten dut borroka hori. Esaten didate, baita ere, azpeitiarrekin edo zumaiarrekin hitz egiten dudanean hizkera asko aldatzen dudala.


Eraikuntza lanetan aritu naiz urte askoan. 16 urterekin hasi nintzen, aitarekin. Linternero batzuek ikusi ninduten, eta esan zidaten ea beraiekin lan egin nahiko nuen. Haiekin bost urte egin nituen. 21 urterekin erabaki bat hartzeko unea heldu zitzaidan berriro: linternero jarraitu edo beste zerbaitetan aritu. Aitak lan asko zuen garai hartan, eta harekin hasi nintzen lanean. Enpresa txiki bat ere sortu genuen bion artean. Gauza txikiak egiten hasi ginen, etxe barruko berritzeak eta. Hazten joan ginen bezala, lan handiagoak ere egin genituen. Adibidez, Goiko tabernaren etxe zaharra eraistea eta berria egitea guk zuzendu genuen, baita Santa Klarako nekazaritza turismoko etxea ere. Une batean, etxe txikiak egitera heldu ginen. Azkenerako lan ugari egin genituen, eta hor beste liga batean sartu ginen.

Pandemia aurreko urtean itxi nuen enpresa. Lehia desleial asko zegoen, ordu asko sartu behar ziren, diru asko mugitzen zen... Eraikuntza beti gustatu izan zait, baina enpresa bat eramatearen ardura ez hainbeste. Ez nenbilen gustura, nire bizitzari aldaketa bat eman nahi nion, eta beste bide bat hartu nuen. Irakaskuntzarako prestatu nintzen, eta Lasarte-Oriako Lanbide Heziketa Eskolan aritu nintzen urtebetez lanean. Lan poltsa batean apuntatu nintzen, eta gaur egun Zarauzko Udaleko brigadan nabil lanean. Bi urte daramatzat han eta espero dut luzatuko didatela.

Oso gustura nabil, eroso sentitzen naiz; beste era bateko bizimodua da. Denbora libre asko ematen dit, gainera. Hori ari naiz deskubritzen.

Arraunarekin eta ontzi tradizionalarekin gaur egun dudan harremanak Olarro Eguneko estropada txikian du sorrera. Javier Mendiolaren eskifaian arraunlari bat behar zuten eta han aritzea eskaini zidaten. Sekula ez nuen arraun bat eskutan hartu. Sartu nintzen eta esperientzia asko gustatu zitzaidan. Nire amodio historia hori hor hasi zen, eta hortik etorri zen gaur egun dudan batela, *Estreina*. Salgai jarri zuten eta aukera egokia ikusi nuen kuadrillako kideen artean erosteko. Deitu nuenerako salduta zegoen. Kontua da batel mota hau ez dagoela merkatuan. Batel mota hau Zumaian egin zuten, eta hamar bat ontzi egingo zituzten. Ontzi horiek egiteko erabilitako moldea, baina, galdu egin zen; ezin dira erreplikak egin. *Estreina* erosi zuen Xabier Alzibarri deitu eta esan nion egunen batean batelaz aspertzen bazen nirekin akordatzeko. Urtebetera deitu zidan galdezka ea oraindik interesatzen zitzaidan. Inorekin hitz egin gabe erosi nuen. Horrek eman zidan sarrera nabigazio mundura. Zenbat eta gehiago sartu, orduan eta interes handiagoa pizten dit. Belarekin ibiltzea, hori bai dela magikoa; haizearekin dantzan ibiltze hori magikoa da niretzat. Belaontzien mundu horretan sartzea hurrengo pausoa izango litzateke. Ez dakit emango dudan, baina ilusioa badut.

Iru aizpak izeneko ontzi bat berriro dugu orain gutxi. 1945eko ontzia da, eta badu sinbolismoa niretzat: gure aita jaio zen urtekoa da, eta orain gutxi hil zaigu aita, gainera. Ontzia Tolosako arotz bat egin zuen, eta hil zenean Beduolari eman zioten bere senitartekoek. Pixka bat ukituta ekarri zuten, eta konpontzeko eta zaintzeko ardura eman zidaten. Konpondu eta uretan jartzea hunkigarria izan zen. Orain gu ari gara zaintzen, eta beste etapa bat da. Ontziak berritzeak eskulanarekin lotura du, eta eskulana den guztia ikaragarri gustatzen zait. Azken finean, puzzle baten antzekoa da. Jolas bat da. ■■■



PUBLIZITATEA

ekin
elektrikistak, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaieta tel. 943-14 30 97
ekin@ekinl.com www.eekinl.com

**Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet**

mara **MÁSMÓV.L**

**ERNIO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Entz
Informatika

**ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·
KONPONKETAK**

Behoko plaza 943-14 33 95

Garaa

Carlos Cintero / Ainhoa Olaizola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20759 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure-Txokoa
aberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaieta
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Iriondo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaieta. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinua
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrek eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo 12 943-86 07 60

**ORRAZTEGI
ZUMAI**

943-86 20 83

KABI Patxita Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

JUARISTI
jagetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20




Babesguneetako habitatak: lurraldeko tapiz preziatuenak (II)

Maiatzeko zenbakian argitaratutako sortarekin jarraituz, orain Geoparkeko babesguneetako habitatei bigarren kapitulua eskainiko diegu, Natura 2000 Sareko Urolako itsasadarrekoak sakonago ezagutzeko.

Urolako itsasadarraren babesa ez da gorabeheretatik libre egon. Hala, hainbat polemika eta zerrendatetik agertu eta desagertu ondoren, 2004an Urolako itsasadarra Europako Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrendan sartu zen, eta 2013. urteaz geroztik, Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) da. Horrek esan nahi du habitat naturalen eta haietako espezien eskakizun ekologikoei erantzuteko beharrezkoak diren kontserbazio neurriak hartu behar direla eta horren arduradunak tokiko gobernuak direla.

Testua eta argazkiak: **Gonzalo Torre.**



Aipatutako KBEn, Urola ibaia eta inguruko zenbait lursail sartuta daude, Errotaberriko edo Fabrikako zubian (Oikian) hasi eta bokalera arte. Guztira, 112 hektarea dauzka eta Zumaia eta Zestoako lurrak hartzen ditu (% 98 Zumaian). Jabegoari dagokionez, erdia baino gehiago itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa da, eta gainerako gehiena pribatua da.

Egia da itsasadarrak presio handia jasan duela eta haren azaleraren zati handi bat artifizializatu dela, baina interes handiko flora eta fauna ditu, eta babesgunearen kudeaketa planaren arabera,

Urolako Kontserbazio Bereziko Eremuaren mugak.

ekosistemak berreskuratzeko ahalmen handia du. Alde horretatik, aipatzekoa da oraindik ere padura funtzionala den lekuak dituela, eta interes komunitarioko habitatak mantentzen dituela. Bere duna sistema erdi naturala Gipuzkoan azalera handiena duena da, eta Euskal Herrian irauten duten habitat horien adibide bakanetako bat da.

Limoetako hegaztiak Santiagotxikin atsedean hartzen.

Errioaren inguruan desagertzeko zorian dagoen landare bat antzeman da, beste sei zaugarriak dira, eta zortzi bat landare arraroak edo interes berezikoak dira. Landareetatik, merezi du aipatzea *Spartina maritima* izeneko gramineoa Usurbiribilagako irletako batean egotea, espezie horrek euskal kostaldean duen

kokapen bakarretakoa baita.

Babesgunearen deskribapena bukatzeko, bertan migrazioetan atsedean hartzen duten hegaztiak aipatu behar dira. Kirol portuak Santiagotxikiko paduraren zatirik handiena bete zuenetik lokatz zelaietan ikus daitekeen hegazti kopuruak behea jo du, baina, oraindik ere, txorien joan-etorrietan, Zumaiakoa funtsezko lekua da euskal estuarioetan.



Itsasadarreko habitatak

Izendapenarekin lortu beharreko helburuak eta neurriak jasotzen duen txostenak 92/43 zuzentarauaren interes

komunitarioko 14 habitat identifikatu ditu Urolako itsasadarrean. Lege testu horrek proposatutako sailkapena konplexua da, baina Urolako kasuan aipatutako habitatak lau kategoria nagusitan laburbil daitezke: batetik, estuarioa, kostako dunak eta zuhaiztiak; eta bestetik, belardi eta sastrakadien multzoa (natur gunean oso azalera txikia dutenez, garatuko ez ditugunak).

Estuarioa

Estuariokoa habitat konplexua eta aberatsa da. Han, ibaiaren ur geza eta mareak ekarritako ur gazia nahasten dira, eta talka horrek oso baldintza fisiko-kimiko zehatzak sortzen ditu. Besteak beste, korronteen dinamika eta suspentsioan dauden materialen sedimentazio abiadura aldatzen dituzte. Hala, uretako material finenak, hala nola, hareak eta lohiak, hondoan pilatzen dira, eta komunitate biologiko oso interesgarriei eusten diete.

Marearteko gune lohitsu eta hondartsuetan, krustazeoak eta molusku bibalbioak dira nagusi, eta ur lasai eta argitsueta hazitako planktona dute elikagai. Alga eta uretako landareekin batera, ornogabe horiek dira arrain eta hegaztien gailurrean dituen kate trofiko aberatsaren oinarria.

Goiago, espeziek mareako ur gaziari aurre egiteko duten gaitasunaren arabera banatuta, paduretako landaredia azaltzen da: behean, gazitasun handiagoa jasateko gai direnak; eta goian, ur gaziarekin hain ondo moldatzen ez direnak.

Santiagoko dunak

Kantauriko bokaleetan, itsasadarraren eskuineko aldean hondartzak sortzea ez da kasualitatea. Coriolis efektua dela eta, korrontek ekialdera egiteko joera du, eta berekin batera eraman ohi ditu urak garraiatutako partikula txikiak. Gizakiak egindako kanalizazioek efektua areagotu dute, eta Urolaren kasuan, pilatutako hondar kopurua ikaragarria da.

Bada, han, hareatzaren atzealdean, lurzorua trinkotu eta itsasoaren ura heltzen ez den horretan, euskal kostaldetik ia desagertutako ekosistema bitxia azaltzen da Santiagon: kostaldeko dunak. Duna aipatzean, basamortuetako mendi itxurakoak datoz burura, eta halakoak daude Kantauriko beste bazter batzuetan; alabaina, gure kasuan, errioko estuktura artifizialak direla medio, soro nahiko lauak dira.

Hondartzetako habitat hura oso berezia da. Alde batetik, itsasoko kresalaren eragina nabarmena da eta eguzkiak gogor jo ohi du;



**KUDEAKETA PLANAREN
ARABERA,
EKOSISTEMAK
BERRESKURATZEKO
AHALMEN HANDIA DU**

**ZUMAIAKO PADURA
FUNTSEZKO LEKUA DA
ORAINDIK ERE
HEGAZTIEN
JOAN-ETORRIETAN**



Itsasoko igitaibelarra, Euskal Herrian egoera zaurgarrian dagoen landarea.

Arbolaldea eta Presaldeko platanok, Oikiako zubitik.

Artadiko mendietako itsasadar aldeko labarretakoak baino ez daude babesgunearen barnean. Baso mota horri buruz luze hitz egin genuen BALEIKERen 281. zenbakian, eta, hortaz, zenbaki honetan oin puntetan pasatuko gara haren zehar.

Erriberako basoak ibaien ondoan hasten dira, oso lur urtsuetan, eta sarritan, uholdeek hartutako guneetan, hain zuen. Horregatik, leku horietako landareek hezetasun handiari aurre egiteko sustrai-sistemak dituzte; hots, usteltzeko zailak diren zuztarrak. Hala, ertzetako lurzoruari eusten diote, eta higadura saihestu; itzala ematen dute, eta uraren tenperatura kontrolatzen dute.

bestetik, lurzorua ez da oso finkoa eta, gainera, ez da ura gordetzeko gai. Hortaz, lehortasuna eta ezegonkortasuna dira, batez ere, ekosistema hau zehazten duten baldintzak; dunan aurrealdetik atzealdera eginda aldatzen doazen ezaugarriak, bestalde.

Halatan, dunetako aurrealdean hondarra solte dago eta, Santiagon oso noizean behin, olatuek ur gazia bertaratzen dute. Inguru horretan gazitasunari eusteko gai diren landareak daude, sarritan ura gordetzeko gorputzean loditutako atalak dituztenak, eta habitat hauetatik kanpo bizi ez direnak; gorago, berri, lurzorua sendoagoa da, materia organikoa metatzen du, eta horren ondorioz, umelagoa da. Horregatik, bertako landareak ere oso espezializatuak dira, baina haien artean itsasertzetik urrutiago bizi diren beste landareak ere agertu ohi dira.

Zuhaiztiak

Bukatzeko, KBERen zuhaitzietie erreparatuko diegu, baina horien azalera oso txikia dela esan behar da (babesgunearen %7). Tipologiari dagokionez, artadiak eta erriberako basoak dira nagusi.

Artadiak gunearen iparraldeko zatian daude, eta Flores eta

| UROLAKO ITSASADARREKO HABITATEN KONTSERBAZIO EGOERA | | |
|---|---|----------------|
| 1130 | Estuarioa | Desegokia |
| 1140 | Ordoki lohitsuak edo hareatsuak, itsasbeheran urpean geratzen ez direnak | Desegokia |
| 1210 | Itsasoko hondakin metaketetan hazten den urteko landaredia | Txarra |
| 1310 | Paduretako halofiloen urteroko landaredia (<i>Salicornia</i> eta antzeko espeziekin) | Txarra |
| 1320 | <i>Spartina</i> generoko espezieen belardiak | Txarra |
| 1330 | Paduretako belardi-ihidi halofiloak | Desegokia |
| 1420 | Paduretako sastrakadi halofiloak | Egokia |
| 2110 | Enbrioi-duna mugikorak | Txarra |
| 2130 | Itsasertzeko duna finkatuak, belar-landaredidunak | Txarra |
| 4030 | Txillardiak | Ez da baloratu |
| 6210 | Albitz-belardiak eta larre erdilehorrak | Ez da baloratu |
| 6510 | Sega-belardiak | Desegokia |
| 91E0* | Haltzadiak | Txarra |
| 9340 | Artadi kantauriarra | Egokia |
| Iturria: Urolako Kontserbazio Bereziko Eremuaren kontserbazio neurriak (EHAA, 112 zk. 2013/06/12) | | |

Euskal Herriko ipar isurialdean haltza da baso horietako zuhaitz nabarmenena, baina toki gehienetan habitat hori oso andeatuta dago. Maiz, Urolako itsasadarrean kasu, belardiak eta baratzeak ibaiertzearaino zabaldu dira, eta espezie arrotzak –platanook eta makalak– landatu ohi dira.

Kontserbazio egoera

Euskal Herriko agintaritzaren aldizkariak argitaratutako Urolako KBEn kontserbazio neurriak jasotzen dituen txostenaren arabera, babesgunearen habitat gehienak egoera desegokian edo txarrean daude; eta paduretako sastrakadi halofiloak eta artadiak baino ez daude modu egokian mantenduta.

Datorren urtean izendapenaren 10. urteurrena beteko da, eta epeotan egoera hobetzeko egindako lanak oso apalak dira: duntan hesiak jarri dira, espezie inbaditzaileak kendu dira eta landaketaren bat egin da Santiagon edo Gorostiagan. Eta ez da izan proposamenik egon ez delako; izan ere, azken hamarkadetan ugari izan dira erakunde publikoek mahai gainean jarritako proiektuak. Udalak, Eusko Jaurlaritzak, Aldundiak, Estatuko gobernuak... gutxienez dozena erdi bat egitasmo proposatu dira, baina, tamalez, bat bera ere ez da gauzatu.

Klima aldaketaren mehatxuak asko dira, eta ezaguna da itsasadarreko ekosistemak onuragarriak izan daitezkeela haiek leuntzeko. Beraz, badirudi garaia dela desadostasunak eta planteamendu partikularrak alde batera utzi eta habitat horiek leheneratzeko elkarlanean aritzeko. Denon –gizakion eta naturaren– mesederako izango da. ■■■

PUBLIZITATEA

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269  

CROISSANTERIA

 pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

Maximus **PENCIL**
estudio decoración

Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan


MENDI - ONDO s.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com


NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Elengabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industriagunea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com


LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com


**OSA
BERNIZATUAK**

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49


OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.
Joxe Mari Korta Industriagunea, A1 - 4, pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com


SOLOZABAL
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritzitatea - Naturopatia
www.sura.eus

Sura
ZAINZA
OINARRIAN

Patxita Etxezarreta 17 - 688 71 85 38

Talaxia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70


Tapaia
Taberna

Embera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA


TTAKUN

Izustari, 3
tel. 943-86 52 89



Publikatak, en lengua vulgar o bascongada

TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

ILUSTRAZIOA: DANIEL CARBALLO
OSTOLAZA

Publicata hitza latingetik dator, eta honela definitzen du RAEren hiztegiak: "1. f. Despacho que se da para que se publique, a alguien que se ha de ordenar. 2. f. Certificación de haberse publicado una publicata". Beraz, komunikazio edo mezu bat da, baita hori argitaratu izanaren ziurtagiria ere.

Baina hitzak esanahi zabalagoa ere badauka, eta erlijioarekin zerikusia zeukaten argitalpenez gain, publikata zibilak ere bazeuden, hau da, botere publikoen (udalen, aldundien...) oharrek ere ezagutarazten zituzten elizetan:

"El púlpito de la iglesia, verdadero *mass-media* de la época, fue el principal medio de información de todos aquellos campesinos –en su gran mayoría analfabetos– que vivían aislados en sus caseríos y que en las misas dominicales tenían noticia desde la última carta pastoral a los feligreses del Obispado hasta del contenido de un bando de la diputación o de su

ayuntamiento, las llamadas publicatas civiles"¹.

Garai hartan, mezuak, aginduak, jakinarazpenak, erabakiak... zabaltzeko bide hoberik ez zegoen publikatak baino, eta igandeetako meza nagusiak erabiltzen zituzten herritarrei horien berri emateko.

Udal dokumentuetan ageri denez, 12 erreal jasotzen zituen Zumaiako bikarioak urte guztiko publikatengatik, baina gutxi zela iritzita, 1770ean gehiago ordaintzeko eskatu zuen, eta Udalak erabaki zuen 24 ematea. 1777an, Udalak ederki arrazoitu zuen zergatik ordaintzen zion:

"se suplique igualmente conceda licencia de pagarle esta cantidad en los venideros y cargar en cuentas; en atención a que se

**ERLIJIOAREKIN
ZERIKUSIA ZEUKATEN
ARGITALPENEZ GAIN,
PUBLIKATA ZIBILAK
ERE BAZEUDEN**

presume, que si se hace novedad se escusará de publicar las Reales Órdenes, las del cavallero corregidor, las de la Provincia, los remates de los efectos de esta villa, sus edictos y demás cosas que se ofrecen en ese año, y en la que otra manera no hai forma más fácil de que lleguen dichas órdenes a noticia del Pueblo, que jamás ha tenido, ni tiene facultades de mantener Pregonero"².

Bikarioak dirua jasotzen zuela sarritan aitatzten da paperetan: 1767an, 1770ean, 1771n, 1774an, 1777an, 1783an... Azken urte horretan, "Real Provisión sobre entierros y funerales" zela eta, udal eskribauak jakinarazi zien herriko apaizei horren berri emateko elizkizunetan, eta aginduaren ale bana eman zien. 1788an, Udal Osoa elkartu zen, aurretik "haviendo precedido publicata por su Parroquia el Domingo último"³. 1800ean, Udalari zegozkion ihitokietako terrenoak alokairuan emateko erabakia zela-eta, "se acordó mandar publicar de esta Iglesia Parroquial"⁴. 1868an, artean, publikatak egiten zituzten:

"Se acordó también oficiar en nombre de esta

Municipalidad al Señor cura de esa Parroquia para que invitara al vecindario al blanqueo de sus casas y a la limpieza de sus respectivas sepulturas en la Iglesia Parroquial a fin de recibir con dignidad y esmero a la respetable representación de esta nobilísima Provincia el próximo mes de Julio"⁵.

Beste hau, berriz, 1869koa da, herritarrek ibaitik harririk ez ateratzeko: "(...) que se haga saber a vecindario ésta disposición por medio del Señor Cura Párroco según costumbre"⁶; edo 1873an: "Igualmente, se acordó que el mismo Domingo anunciará el Párroco de esta villa del púlpito, por si alguna persona caritativa se prestase con alguna ropa para dicho establecimiento [ospitalea]"⁷.

Pentsatzekoa da arestiko publikata horiek guztiak euskaraz egingo zituztela herritarrek ulertzeko, baina, zoritxarrez, ez dago berariaz jasota zer hizkuntzatan egin zituzten; horregatik, interesgarriagoak dira beste hauek, euskaraz egin zirela propio adierazita dagoelako:

- 1779an, "Yo el infraescrito vicario interino de la Iglesia Parroquial de San Pedro de la Villa de Zumaya certifico

haber publicado en quince de Agosto del presente año de mil setecientos setenta y nueve, día de da Assunción de Nuestra Señora, al tiempo del ofertorio de la Missa mayor, y haver dado a entender el contenido assi del precedente edicto, como el del capítulo 3 de la constitución sinodal de este obispado, que trata de jure Patronatus; todo en la lengua Bascongada, para que nadie alegue ignorancia"⁸.

- 1798an, Jose Soroaren jakinarazpena, Donostian, baten batek aurkako zerbait baldin badauka esateko, eta amaieran: "Certifico el infraescrito Rector penp^o. de la Parroquia antigua de San Miguel de Artadi haver publicado en ella en lengua vulgar oy día quince de Abril de mil setecientos noventa y ocho al tiempo del ofertorio de lamisa popular el

ZUMAIAR GUTXI BATZUEK BAINO EZ ZEKITEN GAZTELANIAZ; GEHIENAK EUSKARA HUTSEAN BIZI ZIREN

contenido del despacho precedente. En cuia fe firmo en esta Poblacion o Barrio de Artadi el expresado día, mes y año. Don Agustín de Olano"⁹.

- 1803an, lehengo bikarioaren etxea enkantean salgai jarriko zutela-eta, Zumaiako alkateak agindu zion bikarioari horren berri emateko: "publique a entender el thenor de este edicto en la Misa mayor del proximo Domingo para que llegue anoticia de todos, y nadie pueda alegar ignorancia, y poner asu continuación certificado de ello"¹⁰; agindu horren atzetik, hauxe dago idatzita, azpialdean: "Certifico yo el infra-escrito vicario propio de la Parroquial de San Pedro de la Villa de Zumaya, que he dado a entender al Pueblo, en lengua vulgar, al tiempo del ofertorio de la Misa mayor de oy, el contexto del precedente edicto"¹¹; hurrengo orrian ere antzera. "Yo el infraescrito Rector de la Matriz de Ayzarnazabal certifico haver dado ha entender á mi feligresía en lengua vulgar en la missa Popular"¹².
- 1821ean, Iruñean, Victor Jose de Camio presbiteroaren,





Aizarnazabalgo errektore interinoaren deklarazioan, herritarrek salatu egin zutela-eta. Honela amaitu zuen adierazpena: "De donde procede al cabo de seis años el resentimiento, y de éste los chismes que se han forjado, estrañando muy mucho no hubiesen dado a luz los defectos que ahora se amontonan, cuando leyó en lenguaje castellano, y vulgar el edicto del Señor Obispo a su feligresía para el fin de poner remedio si los

hubiese, en su Santa Visita"¹³.

Euskarari erreferentzia egiteko, behin eta berriz propio aitatzten dute "lenguaje vulgar" erabili izana, eta *vulgar* hitzak oraindik ere esanahi hori gordetzen du gure hiztegian: "1 *adj.* herri xumearen; herritar; herri- (hitz-elkarteetan) *el lenguaje vulgar*: herri-hizkera".

Duela ez hainbeste, egunkaririk, telebistarik, irratirik, sare sozialik, telefono mugikorrik... ez zegoenean,

pulpituetatik ezagutarazten zituzten herritarrek jakin beharrekoak, elizak zirelako bilgune nagusiak, baina gaztelaniaz jasotako testua apaizek itzuli egiten zuten euskarara, zumaia xume eta arruntek ulertzeko, bestela alferrik zelako. Beraz, ondorioa garbia da: zumaia gutxi batzuek (dirudunek, ikasketadunek...) baino ez zekiten gaztelaniaz, eta zumaia gehien-gehienak euskara hutsean bizi ziren. ■

¹ RUBIO POBES, Coro. "El poder del púlpito. El contencioso sobre publicatas civiles y la politización del clero en la primera mitad del siglo XIX". HISTORIA CONTEMPORANEA. EHU. 2000. 20. zenbakia. (Interneten: <https://ojs.ehu.eus/index.php/HC/article/view/16024>).

² Zumaia Udal Artxiboa 69 (94), 1777-05-01.

³ ZUA 69 (176), 1788-01-27.

⁴ ZUA 70, 1800-11-19.

⁵ ZUA 73.01 (159), 1868-05-22.

⁶ ZUA 73.01 (204), 1869-05-21.

⁷ ZUA 74.02, 1873-10-22.

⁸ Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa 34-944, C/2.314 N°21 (16V), 1779-08-15.

⁹ IEA 40-1.310, C/2.881 N°3, 1798-04-07.

¹⁰ ZUA 17.05, 1803-08-21.

¹¹ *Ibidem*.

¹² *Ibidem*.

¹³ IEA 38-1307, C/2.704 N°12 (14R), 1821-08-20.

KOMUNIKAZIO MULTIMEDIA



egunkari

1



telebista

1



4

aldizkari



7

atari digital



B

BALEIKE

K

KARKARA

erlo

ERLO



MAXIXATZEN

UH

UROLA KOSTAKO
HITZA



UZTARRIA

ZH

ZARAUZKO
HITZA

AGENDA

DEIALDIAK

URRIAK 25-28

Nazioarteko kongresua, *Munduko Lehen 100 Geologia Interesguneak*.

AZAROAREN 18TIK ABENDUAREN 2RA

Euskaraldia.

ERAKUSKETA

URRIAK 21TIK AZAROAREN 6RA

Nazioarteko kongresua, *Munduko Lehen 100 Geologia Interesguneak Oxford aretoan*.

URRIA

6 OSTEGUNA

Zine forum: *Cinco lobitos*.
Aita Marin, 19:00etan.

10 ASTELEHENA

Hitzaldia: Ignacio Suarez-Zuloaga,
Elogio de lo manual.
Oxford aretoan, 18:30ean.

11 ASTEARTEA

Irakurketa: *Bizitza ez al da oso arriskutsua?* liburua. Irakurri Matte

taldean, Joseba Sarrionandia bertan dela.

Alondegiko Moila gelan, 18:00etan.

13 OSTEGUNA

Urpeko zinema Zikloa.
Aita Marin, 19:00etan.

14 OSTIRALA

Antzerkia: TTANTTAKA, *Nire semea pixka bat motelago ibiltzen da*.
Aita Marin, 20:00etan.

19 ASTEAZKENA

Ipuin kontaketa: Apika *Ttipi Ttapa* (2-3urte).
Haur liburutegian, 17:30ean.

Hitzaldia: Ekofeminismoa. Yayo Herrero.
Emakumeon Etxea, 18:30ean.*

20 OSTEGUNA

Zine forum: NOP.
Aita Marin, 19:00etan.

22 LARUNBATA

Jardunaldiak: Zaintzaren ingurukoak.
Egun osoan zehar.

AZAROA

3 OSTEGUNA

Zine forum: *Great freedom*.
Aita Marin, 19:00etan.

4 OSTIRALA

Antzerkia: Oscar terol.
Aita Marin, 20:00etan.

6 IGANDEA

Haur antzerkia: *Benetan be-batetik bestera*.
Aita Marin, 12:00etan.

8 ASTEARTEA

Irakurketa: Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* liburua. Irakurri Matte taldean.
Alondegiko Moila gelan, 18:00etan.

16 ASTEAZKENA

Hitzaldia: *Yo vieja*. Anna Freixas.
Emakumeon Etxea, 18:30ean.*

17 OSTEGUNA

Zine forum: *Fire of love*.
Aita Marin, 19:00etan.

18 OSTIRALA

Kontzertua: Arineketan.
Aita Marin, 20:00etan.

bertako -REKIN BAI!
Ilogailuak | ascensores

DROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari



GIPUZKOA
943 903 450

www.bertako.eus

Hitzen memoria



FAMILIAKO LEXIKOA

Egilea: Natalia Ginzburg
Argitaratzailea: IGELA
Argitaratze urtea: 2021
Orrialdeak: 310
Generoa: narrazioa



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Familiako lexikoa Natalia Ginzburgek 1963an argitara emandako narrazioa da; bere lanik miresgarriena, ezagunena eta irakurriena da.

Familiaren kontuei buruz idaztea oso ohikoa dugu literaturan. Mundua ulertzeko mapa modukoak dira nor bere familiaz kontatzen direnak. Natalia Ginzburgek ez ditu istorio arranditsuak kontatzen, ezta une eta gertakizun ikusgarriak deskribatzen ere. Bere familiaz hitz egiten digu liburuan, leuitarrez, hain zuzen ere.

Levitarrak judutarrak eta antifaxistak dira, eta Italiako iparraldean bizi dira, Turinen, 1930etik 1950era arte. Narrazioaren protagonistak Levi judutarren bost seme-alabak, Beppo Levi aita, Lidia ama, Nataliaren lehenengo senarra, Leone Ginzburg, eta haien etxean aurrera eta atzera ibiliko diren hainbat eta hainbat adiskide ezkertiar eta antifaxista izango dira. Guztiak benetako pertsonaiak eta ez fikziozkoak. Eta, horietako bat, Cesare Pavese idazle handia.

Natalia etxeko txikia da. Txiki-txikitatik ikusi ditu aurrera eta atzera etxean garaiako politikarigaiak, ekintzaile eta ideologo sozialistak, komunistak eta antifaxistak. Etxeko atea zabalduko digu, eta, leihoren bateko errezelak alboratuta, bere etxe barrura begiratzeko parada eskainiko digu: familiakoen arteko eztabaida txikiak, oihuak, barre algarak, irriak, haien iritziak, sentimenduak, kontraesanak, jokabideak, maniak, filiak eta fobiak, eta euren arteko hizketaldi amaiezinak. Seme-alaben eta gurasoen hizketaldi horiek familiakoen mintzaira sekretua bilakatuko dira, eta *familiako lexiko* berezi horren bitartez ezagutuko ditugu Nataliaren aita eta ama. Ezagutuko ditugu, halaber, idazlearen bost neba-arrebak, bere senarra, eta XX. mende hasierako tertulietan parte hartuko duten balio handiko politikariak eta intelektualak.

Baina, familiaren eta lagunen argazki zoragarria izateaz gain, *Familia lexikoa*, herri baten –Italiaren– eta garai baten

lekuko ezinbestekoa da; Mussoliniren faxismoaren etorreraren, nazien tiraniaren, Bigarren Mundu Gerraren leherketaren eta garaiako judutarren eta antifaxisten bizimoduaren lekuko paregabea.

"Faborez, ez hasi berriz Biboteaundiren kontuekin! Hamaika aldiz aditu dut istorio hori!". Hitz horiekin bukatzen du Nataliaren aitak liburua. Hori da mamia; Nataliaren historia gutako edonoren historia ere izan liteke: aita marmartia, ama eragilea eta behin eta berriro etxe hartan errepikatzen diren hitzak.

Argazkilari bikaina dugu Natalia Ginzburg. Prosa arinez, hitz xumez, zehaztasunez, umorez eta zorrotzasunez, inolako apainkeriarik gabe deskribatzen ditu egoerak, eta deskribatzen duen paisaia horren konplize bihurtuko gaitu irakurleok. Liburua irakurtzen dugun bitartean, hainbat hitz irakurtzean, irria garatuko zaigu ezpainetan; izan ere, irakurtzen aurrera egin ahala, leuitarren familiako sentituko gara, Nataliak bere familiako partaide bilakatuko gaitu eta. ■■■

Preziorik ez



SORAYA LOPEZ. DISTIRA ARGAZKI ELKARTEKO PRESIDENTEA

Duela zazpi urte apuntatu nintzen Zumaiako Distira argazki elkartera. Ordura arte, argazkilaritza zaletasun moduan hartu nuen, eta modu autodidaktikoan aritu nintzen. Pixkanaka, pasio bihurtu zen: egunerokotasunetik eta estresetik ihesbidea. Kirolarietara ondo sentitzeko kirola egin behar duten bezala, argazkigintza atsegin dugunok argazkiak atera behar ditugu, eta atentzioa ematen digun hori guztia hilezkortu. Distiran nire zaletasun bera duen jendea ezagutzeko aukera izan dut, argazkigintzarako baliabide profesionalak dituen lokal bat eskura daukat, eta, batez ere, besteengandik ikasteko eta nik nekiena partekatzeke aukera ere izan dut.

Euskal Herriko argazkigintza elkartean urtero elkartzen gara, eta biltzarrak, topaketak... egiten ditugu. Topaketa horietan, Euskal Herriko txoko guztietako argazkilari handiak ezagutu ditut; horietako asko nire lagunak dira eta, gutxika-gutxika, nire zaletasuna gero

eta jende gehiagorekin partekatzen dut.

Elkarte batean egoteak asko ikasteko aukera ematen dizu. Distiran ikastaroak eta tailerrak antolatzen ditugu, elkartzeko lokal bat dugu, eta argazki ekipu profesional bat ere badugu; ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematen digu.

Webgunea ere badugu, eta sare sozialak, lehiaketak... ere kudeatzen ditugu. Elkarteei dagokien lege araudia ere bete behar dugu: akta liburuak, bazkideak, kontuak, sozietateen gaineko zerga... Eta hori guztia egiteko denbora eta dedikazio handia behar da. Horregatik, elkarte batean egoteko, nahikoa pertsona altruista izan behar da, ez baita diruz ordaindutako jarduera bat.

Gero eta berekoiagoa den gizarte batean bizi gara, eta

**GAZTEEI
ASOZIAZIONISMOAK
MEREZI DUELA
ERAKUSTEKO MODUA
BILATU BEHARKO DUGU**

hori asoziazionismoaren munduan ere sentitzen hasi gara. Gero eta gutxiago gara elkarteetan lan egiten dugunak, eta elkarte horietan lan egiten dutenak, oso altruistak izanda ere, nekatu egiten dira azkenean. Gainera, indibidualismo hori nabarmenago ikusten dugu gazteen artean, eta, horren ondorioz, irabazi asmorik gabeko elkarteetako jendearen batez besteko adina gero eta altuagoa da, eta gai horrek kezkatzen gaitu. Gazteei asoziazionismoak merezi duela erakusteko modua bilatu beharko dugu.

Ez naiz damutzen Distira programan igaro ditudan urteez; argazkilari eta pertsona gisa hazten lagundu didate, eta elkartean nik baino urte gehiago daramatzen jendea dago. Soldatarik gabeko lana bada ere, horrelako elkarte batean egoteak beste maila askotan konpentsatzen zaitu.

Zorionez, bizitzan dena ez da dirua, eta Distira familiako kide den jendearekin gozatzeak eta nire zaletasuna partekatzeak ez du preziorik. ■



ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 beheka ▪ ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ▪ asesoriarin@asesoriarin.com

Hego-haizeak dakarrena



JUAN LUIS ROMATET

Goizaldeko 03:30ak dira eta esna nago, izerditan, ohean botata. Bero egiten du, sekulako beroa, eta ezin dut lorik hartu. Alde batera jarri orain, bestera minutu gutxira; izararekin estali gerriraino bada ere, izara kendu, berriro estali. Jaiki, komuneko buelta egin, basokada bat ur edan, izerdi gehiago bota, madarikatzen hasi beroagatik, balkoira irten aire pixka bat hartzera eta berehala bueltatu; batetik, jubilatatu bat ematen dudalako goizaldeko ordu horietan balkoitik begira, eta airea beroa delako, bestetik. *Hau beru / abuztuko gau hontan*, abesten zuen J.C. Perezek. Ez da abuztua, iraila da, iraila infernuan. Beroaldi hauek ziklikoak omen direla diote batzuek. Bai, eta ni Aita Santua.

Auskalo zergatik Xirula denda etorri zait burura, oraindik diskoak saltzen zituen garaiko Xirula, eta disko bat bereziki: The Blow Monkeys talde britainiarraren disko bat, hain zuzen. Azala gogoratzen dut, baina ez izena –Interneten begiratu dut eta 1989an argitaratu zuen *Choices* zen, abesti ezagunen bilduma bat da–. Zergatik etorri zait disko hau burura? Jainkoak daki, erantzungo nuke, baina jainkorik ez da, ezta? Beno, ez da ez ordua, ez unea, ez lekua, digresio erlijioso-etiko-filosofiko hauetan hasteko.

Bada, ez nintzen Xirulan disko asko erosten zuenetakoa. Denda Arranplan zegoenean anaiarentzat disko bat eroatera sartu nintzen behin, bere urtebetetzea zelako... edo Gabonak izango ziren. Ez dakit. Beno, lehen asmoa diskoa kasetean grabatuta oparitzea zen –halakoak egiten zituzten garai hartan denda batzuetan, diskoa hartu, kasetean grabatu, eta kopia pirata saldu–, baina miserable moduan ez geratzeagatik, diskoa erosi nuen. Pink Floydek 1987an atera zuen *A momentary lapse of reason* zen. Bai, ni Pink Floyden disko bat erosten. Bai.

Xirula Erribera kalera mugitu zenean bai, orduan disko batzuk erosi nituela gogoratzen dut. M-ak-en *Barkatu ama*, The Cure-n *Disintegration*... Metallicaren kasete bat ere eskuan izan nuen, erosi ez banuen ere. Bai, ni Metallicaren zerbait erostea pentsatzen. Bai.

Eta han egon zen aurrez aipatutako disko hori denbora askoan, The Blow Monkeys taldearena, alegia. Sartzen nintzen bakoitzean egoten nintzen diskoari begira, erosi edo ez, jakin gabe zer zen ere. Garai hartan ez zegoen Internetik, ez Youtuberik, eta Spotify zer izango zen akaso asmatzailearen buruan egongo zen. Aldizkarietan agertzen ziren artikuluak eta kritikak erabiltzen genituen gida moduan erosi edo ez erosi erabakitzeko, baita ETBn behin eta berriz ematen zituzten bideklipak ere, baina ez zen hau kasua. Gauza da ez nuela erosi, disko/azal/talde hura burmuineko tolesturen artean desegin zen, hego-haizeak berriro ekarri didan arte, 30 urte luzez, ahaztua izan ondoren. ■■■

**XIRULA DENDA
ETORRI ZAIT BURURA,
ARTEAN DISKOAK
SALTZEN ZITUEN
GARAIKO XIRULA**

Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



Casa BASUSTA

LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etkez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18
943-86 26 11

www.floristeriabasusta.com

HEZKUNTZAN, MUNDUA ALDATUKO DUTEN PERTSONAK HEZTEN DITUGULAKO..

HERRITIK ABIATUTA, MUNDUARI BEGIRA

